



## San Migel de Linares eliza (Artzetales)

### Eraikina

Artzetales haranak bi parrokia historiko ditu: Traslaviñako Andre Maria eta San Migel de Linares, bakoitza bere auzunearen buruan. Horietariko azkenean, harana menperatzen duen inguru zabal batean, udal administrazioaren egoitza dago, Udaletxe moderno eta handi batean; Udaletxea elizaren atzez atze eraikita dago eta biak plaza baten inguruan daude; plaza horretan oraindik ere haraneko erreboila dago, mende askotan udalbatza irekia ospatzeko erabili zen lekua, hain zuzen ere.

Elizak Enkarterrietako eta Bizkaiko eraikinen arteko itxura dauka; baina elementu aipagarriak ditu; bi elementu nagusiak ondoko alderdion oinarritzen dira: estilo erromanikoko portada dauka eta tenpluko bukean bi kapera garrantzitsu ditu itsatsita, bata pribatua eta bestea publikoa, interes arkitektoniko nahiko handikoa eta, batez ere, altzari oso interesgarrikoa.

Harriz landuta, tenpluak lau tarte eta goiburu angeluzuzeneko nabea dauka, guztia gurutzeriaz estalita, Gotikoan egiten zen bezala. Oinetan oinplano karratuko dorrea dago. Nabearen alboetan, lehenengo tartean, bi kapera handi daude; horren eraginez, eraikinaren kanpoaldeak gurutze forma dauka, baina forma hori ez da jatorrizkoa, gerora egindako gehigarrien ondoriozkoa baizik. Biak modu desberdinean estalita daude, tenpluko bukeari dagokionez; eskuinekoak ganga trenkatua dauka eta aurrekoa plaka erradialekin apainduta dago, iparraldean.

Elizaren sarbidea (hegoaldetik) teilapedun portikoaren azpian babesturik dago. Elizako hormatik irteten den elementua da, arkibolta bikoitza gehi kanpoko txanbrina (marko modura) eta itxierako arkuak, den-dena puntaduna. Horiek pilastretan euskarriturik daude, eta bi arkiboltak, berriz, ukondodun zutabe banatan euskarriturik daude. Arkiboltak erroelek in eta puntadun forma batzuekin apainduta daude. Zutabeetako kapitelak, bestalde, landare motakoak dira, gunera itsatsitako hosto handiak.

Elizaren irakurkera ez da erraza, mendeetan zehar egindako berrikuntzen eta gehigarrien ondorioa baita. Leihoen, nerbioen molduren eta burukoen klabeen forma kontuan hartuz, eliza estilo gotiko berantiarrean egin zela esan daiteke (1500. urtea, gutxi gorabehera); eraikin horrek zaharragoa zen tenplu baten portada aprobetxatu zuen (erromaniko berantiarra, XIII. mendearen erdialdekoa). XVI. mendean eraikin hori oinetarantz handitu eta zati gehiago erantsi ziren; dorrea gutxi gorabehera 1600. urtean egin zen. Azken fasean, hormak apurtu eta kaperak egin ziren; horiek kruzeroko besoen itxura dute. Kristo santuarena, iparraldean, 1685eko da eta Lucas Horcasitas funtzionario aberatsak sustatu zuen (Balmasedako Aduanako administratzailea); horrek bere armariak jarri zituen bertan.

Bestea, Arrosario santuarena, handik gutxira proiektatu zen; izan ere, 1687an San Migelen maiordomoa Trasmierara joan zen, harginak erakartzeko ediktuak jartzera.


### Altzariak

Artzetalesko San Migel elizako altzariak ere oso interesgarriak dira. Esate baterako, erretaula nagusia zur polikromatuzko altzaria da eta elizaren aurrealdean dago. Oinplano zuzena dauka eta gorputz bat aulki baten gainean dauka, eta atikoa ere badu; hori guztia, berriz, zutabe salomoniko parratuekin banaturiko hiru kaletan. Jatorrizko

sagrarioa dauka, mota arkitektonikokoa. Erretaula 1695ean egin zen eta, bertan, alde horretako erretaulagile barroko nagusienetarikoa batek hartu zuen parte, Francisco Martínez de Arce (Liendokoa). Lehenagoko irudi bat aprobetxatu zen, altzariaren erdiko San Migel; Errenazimentuko irudi aktiboa da, Burgosko erako arnes militar dotorea duen Errenazimentuko irudia. Erretaulako piezarik onena da.

Baina elizan badago pieza hoberik. Piezarik onena Arrosarioko erretaularen erdian dago, eta ez da ondo ikusten. Ama Birjina eta Umea adierazten dituen zur polikromatuzko multzoa da; Arrosarioa Santo Domingo de Guzmán ematen ari dira, eta hori erdi belauniko ageri da. Garai hartako eskultore rococo onenaren lana dela dirudi: Luis Salvador Carmona (tailerra Madrilan zuen); izan ere, maisu horrek egindako beste batzuen antz oso handia dauka. Bizkaiko eskultura rococo gutxi dute Artzetalesko Arrosarioaren multzoko irudien kalitatea, dotorezia eta samurtasuna.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### San Migel de Linares eliza

Artzetales. (*San Migel de Linares auzoa*).

#### Nola heldu:

Artzetalesen barrutik, Traslaviña auzora iritsitakoan, eskuinetara doan bidea hartu eta San Migel de Linares auzora iritsiko gara, udalerriko administrazio gunera, eta bertan daude Udaletxea eta San Migel eliza.

#### Bisitak egiteko ordutegia:

Meza orduetan bisita daiteke.

#### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Artzetales*)

- San Antolingo ermita eta zezen-plaza. (*Tuetxe auzoa, zlg.*)
- Horcasitas jauregia. (*Horcasitas auzoa, zlg.*)
- Viako etxea. (*Via auzoa*).
- Traslaviñako Andre Maria eliza. (*Traslaviña auzoa*).
- Viako baserri turtzioztarra. (*El Peso auzoa, 18*).
- Mirandako dorretxea. (*Traslaviña*).

